

## IRAGARKIA

Osoko Bilkurak 2022ko maiatzaren 31n, Hernaniko Udalaren aurrekontu orokorra aldatzeko espedienteari hasierako onarpena eman die: Udalaren Kreditu gehigarriak bidezko 2022-KALD-2 espedientea, eta Ereñotzuko erakundearen Kreditu gehigarriak bidezko 2022-KALD-2 espedientea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontua jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a Erakutsita dagoen lekua: Kontu-hartzailetzan.
- b Aurrekontua aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: hamabost lanegun.
- c Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu duten korporaziokideek.
- d Aurkaratzeko arrazoiak: Aipaturiko Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.
- e Aurkezteko bulegoa: Udal sarrera erregistroan.
- f Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epean inolako erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, aurrekontu aldaketa behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Hernani, 2022ko ekainaren 1a.- Alkatea, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra